

**2/2003 LEGEA, IZATEZKO BIKOTEAK ARAUTZEN
DITUENA****LEY 2/2003, REGULADORA DE LAS PAREJAS DE
HECHO****EKONOMIA- ETA ONDARE-ERREGIMENA
ARAUTZEN DUEN ITUNA****PACTO REGULADOR DE LAS RELACIONES
ECONOMICO-PATRIMONIALES**

D./Dña. jaunak/andreak

y/eta D./Dña. jaunak/andreak

ADIERAZTEN DUTE**MANIFIESTAN**

1. Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera erabaki dutela izatezko bikotea eratzea.
2. Lege horren 5. artikuluan ezarritako ondorioetarako, ITUN hau izenpetzen dutela, hurrengo xedapenen arabera,

1. Que han expresado su voluntad de constituir pareja de hecho acogida a la Ley 2/2003, de 7 de mayo, Reguladora de las Parejas de Hecho.
2. Que, a los efectos de lo dispuesto por el artículo 5 de la mencionada Ley, suscriben el presente PACTO con arreglo a las siguientes

XEDAPENAK:**ESTIPULACIONES**

1. Kode Zibilaren IV. Liburuko III. Tituluko **Irabazpidezko Ondasunen Sozietatea** izenburuko IV. Kapituluak, 1.344. artikulutik 1.410. artikulura bitartean araututakoa izango da bikotearen ekonomia-erregimena. Bikotekide biek bat etorrita erabaki dute erregimen hori onartzea, Itun honen gainerako xedapenen aurka joan litezkeen alderdietan izan ezik. Beraz, izatezko bikotea eratzten denetik aurrera bikotekide bientzat izango dira bietako edozeinek lortutako irabazi edo hobariak. Irabazi edo hobari horiek erdibituko dira eraturako irabazpidezko ondasunen sozietatea deseginez gero.
2. Bikotekide biek mantenduko dute etxebizitza eta gastu komunak ordainduko. Ondokoak izango dira etxebizitza mantendu eta gastu komunak ordaintzeko bikotekideen ekarpenak: etxeko lanak, beste bikotekidearen lanbideari edo enpresari laguntza pertsonala edo profesionala, ordainsaririk jaso ezean edo behar besteko ordainsaria jaso ezean; beren jardueratik edo ondasunetatik datozen baliabideak, bikotekide bakoitzaren diru-sarreraren proportzioan; eta, baliabide horiek nahikorik izan ezean, beren ondarearen proportzioan. Ez dira gastu komunak izango bikotekide bakoitzaren ondasunak kudeatu eta zaintzetik datozenak, ezta, oro har, bikotekide baten intereserako bakar-bakarrik direnak ere.

1. El régimen económico de la pareja será el regulado en el Libro IV, Título III, Capítulo IV, De la **Sociedad de Gananciales**, artículos 1.344 a 1.410 del Código Civil, régimen al que deciden acogerse de mutuo acuerdo, salvo en aquellos aspectos que contravinieran el resto de las estipulaciones del presente Pacto. Según ello, se hacen comunes para ambos integrantes de la pareja las ganancias o beneficios obtenidos indistintamente por cualquiera de ellos desde el momento de la constitución de la pareja de hecho. Dichas ganancias o beneficios les serán atribuidos por mitad al disolverse la sociedad de gananciales formada.
2. Ambos miembros de la pareja contribuirán al mantenimiento de la vivienda y de los gastos comunes. Se considera contribución al mantenimiento de la vivienda y de los gastos comunes el trabajo doméstico, la colaboración personal o profesional no retribuida o insuficientemente retribuida a la profesión o a la empresa del otro miembro de la pareja, así como los recursos procedentes de su actividad o de sus bienes en proporción a sus ingresos respectivos, y si estos no fueran suficientes, en proporción a sus patrimonios. No tendrán la consideración de gastos comunes los derivados de la gestión y la defensa de los bienes propios de cada miembro, ni, en general, los que respondan al interés exclusivo de uno de los miembros de la pareja.



3. Bikotekide batek ezin izango ditu ondasun komun horiek besterendu, kargatu eta, oro har, edozein eratan erabili, bestearen adostasuna izan gabe.
4. Izatezko bikotea deseginez gero, behar duen bikotekidearentzat aldizkako pentsio bat ezarriko da ondoko kasuetan, bikotekide horren mantenua egoki ziurtatzeko:
 - a) Loturak murriztu badio pentsioaren eskatzaileari diru-sarrerak lortzeko gaitasuna.
 - b) Bien kargura dauden seme-alabak zaintzeak eragotzi edo zailduko badio lan-jarduerak egitea.
5. Bikotea deseginez gero, konpentsazio ekonomiko bat ezarriko da, ordainsaririk jaso gabe edo behar besteko ordainsaria jaso gabe, bien etxean lan egin duenarentzat edo beste bikotekidearentzat lan egin duenarentzat, baldin eta arrazoi horretatik sortu bada bikotekide bien ondareen arteko aldea, bat bidegabeki aberastea ekarri duena.
6. Bikotekide baten heriotzarenatik edo heriotz-adierazpenarenatik bikotea desegiten bada, bizirik dirauen izatezko bikotekideak gozamen-eskubidea izango du, kausatzaileak utzitako ondasun guztien erdien gainean, ondorengoekin batera agertuz gero. Eta ondorengorik izan ezean, gozamina izango du, ondasunen bi herenen gainean. Hala ere, biztantzeko eskubidea izango du, izatezko bikoteari dagokion etxebizitzan. Hori guztia, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeko 52. artikulatik 56. artikulura araututako norainokoen eta mugapenen arabera.
3. Ninguno de los miembros de la pareja podrá enajenar, gravar o, en general, disponer de su derecho sobre los bienes comunes de cualquier forma que comprometa su uso sin el consentimiento del otro.
4. En caso de cese de la pareja de hecho se señalará una pensión periódica para la parte que la necesitara para atender adecuadamente su sustento en uno de los siguientes casos:
 - a) Si la unión hubiera supuesto disminución en la capacidad del solicitante de la pensión para obtener ingresos.
 - b) Si el cuidado de los hijos e hijas comunes a su cargo le impidiera la realización de actividades laborales o las dificultara seriamente.
5. En caso de cese de la pareja se señalará una compensación económica a favor del miembro de la pareja que, sin retribución o con retribución insuficiente, haya trabajado para el hogar común o para el otro miembro, en el caso de que se haya generado por este motivo una situación de desigualdad entre el patrimonio de ambos que implique un enriquecimiento injusto.
6. En el caso de extinción de la pareja por muerte o declaración de fallecimiento de una de las personas que componen la misma, el miembro superviviente de la pareja de hecho tendrá derecho al usufructo de la mitad de todos los bienes del causante, si concurriere con descendientes, y, en defecto de descendientes, al usufructo de dos tercios de los bienes. Tendrá, además, un derecho de habitación en la vivienda de la pareja de hecho. Todo ello, en los términos y con las limitaciones establecidas en los artículos 52 a 56 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

..... de de 2.....
 2(e)ko.....ren a.

Sinadura / Firma

Sinadura / Firma